

J. Habermas: Komunikazioaren aldeko proposamena

Josu Amezaga
EHUko irakaslea

Nola eraiki komunikazio librea ahalbidetuko duten baldintzak? Galdera honi erantzun nahia agertzen da Jürgen Habermasen lanaren zati garrantzitsu batean. Gizateriaren hastapenetatik hona, gizakiak eginbehar nagusi bi izan ditu. Batetik naturari aurre egin beharra, bizirauteko behar dituen baldintzak egokitu ahal izateko. Bestetik gainerako gizakiekiko harremanak eraiki beharra, naturari elkarrekin aurre egiteko ezezik baita gizaki gisa garatzeko ere. Bigarren zeregin honetan, funtsezkoa da komunikazioa. Izan ere, komunikazioaren bitartez eraikitzen dituzte beren harreman-moduak gizakiek.

Gaurko gure gizartean, alabaina, mugatuta dago komunikazioa, kateatuta. Berez komunikazioaren eremu izan beharko lukeen gizarteko harremanen esparruan, gero eta presentzia handiagoa ari da hartzen arazoipide instrumentala; naturarekiko jarreratik arazoitzeko modua alegia: azken funtsean, Subjektua-Objektua harreman eredu planteatzen duen arazoipidea. Horren kariaz, gizakiak objektu gisa ibiltzen du gizakia, ez subjektu gisa, naturaren gainean ezartzen den kontrol berbera beste gizakien gainean ere ezarriz.

Arazo hau mahaigaineratzera eta gainditzeko egoerak arakatzera –hots, komunikazioaren eginbeharra berreskuratzera– zuzentzen da, esan bezala, Habermasen lanaren zati handi bat.

How may we build the conditions that will allow a free communication? An important part of Jürgen Habermas' work tries to answer this question. From the origin of humanity, men and women have had a double task. On the one hand, they have to face their relation with nature, in order to create the conditions they need for survival. On the other hand, they must live in relation with other human beings. At this task, communication is not only important: it is the way which human beings build their relationship through.

Today in our society, communication is very constrained. Some spheres of social relations, which should develop according to the rules of rational consensus, are now under instrumental reason: that is to say the type of reason we use in our relation with nature (Subject-Object). Due to this, people, ever in communication, address to people as object, not as subject or as human beings.

This question and the way to return to original aim of communication, are the issues that Habermas develops in a very significant part of his work.

Gizartearen razionalizazioaz

“Zientzia eta teknika ideologiatzat” (Habermas 1991) izeneko artikuluan, egungo gizarte kapitalistetan arrazoi-menak pairatzen duen egoerari hel-tzen dio Habermasek. Max Weberrek, jakina denez, gizartearen razionalizazioa aipatzen du gure garaietako ezaugarri nagusitzat. Alegia, garapen zientifiko-teknikoa gidatzen duten arau berberak –hots, helburu jakinak lortzeko bitarteko egokiak erabiltzearen arauak– gizarteko harremanei ere aplikatzen zaizkie. Horrela, beste garai batzuetan gizarteko ordena zilegiztatzeko zuten legitimazio-sistemak –mitikoak, erlijiosoak, tradizionalak, e.a.– bertan behera datoz gure garaiotan, legitimazio modu “razionalak” nagusituz.

Interpretazio honen aurka altxatu zen, ordea, Marcuse. Beronen iritziz, Weberrek dioen “gizartearen razionalizazioak” ez du ekarri gizartearen razionaltasunik. Aitzitik, indarrean jarraitzen duten menperakuntza-harremanak estali baino ez ditu egiten ustezko razionalizazio horrek, gizakien arteko elkarbizitza razionala oztopatuz. Weberren razionalizazioa helburua lortzeko bitartekoak hautatzera zuzentzen den arrazoipidean oinarritzen denez, helburuen inguruko eztabaida albo batera uzten da. Eztabaida bitartekoen inguruan zentratzen da, helburuak –hots, gizaki ezberdinen interesetatik datozen helburuak– eztabaidatik kanpo geratuz. Helburu hau ala hura erabaki beharra ez da arazo teknikoa, erabakia ez baita hartzen baldintza objektiboen arabera, auzian parte hartzen duten subjektu ezberdinen interesen arabera baizik. Helburu jakinera iristeko erabili beharreko baliabideak aukeratzea, ordea,

arazo teknikoa da. Zein da biderik egokiena helmuga honetara edo hartara iristeko? Hori arazo teknikoa da. Gizarteko arazoengatik inguruko eztabaida azken honetara mugatzen denean, gizarte osoari dagozkion erabakiak teknifikatu egiten dira. Ikusteak besterik ez dago nola erabakitzen den krisialdi garaian lantegiak ixtea, beti ere argudio teknikoak erabiliz (errentagarritasun eza) sekulan zalantzan jartzen ez den helburu batera (garapen-eredu jakin batera) hurbiltzeko asmoz. Kasu hauetan eztabaidatik kanpo geratzen dira helburuak (langileek denok lanpostua izatea aldarrika lezakete helburu nagusitzat, nahiz eta horrekin garapen-eredu hau zalantzan jarri), jadanik erabakita dagoen helburua lortzeko erabili beharreko baliabideen inguruko auzira mugatuta.

Gizakien arteko harremanen teknifikazio gisa ulerturiko “razionalizazioa”, beraz, alienatzailea da, gaur egungo zapalkuntza egoerak gainditu beharrean zilegiztatu egiten dituelako. Horren arrazoia zientzia eta teknikaren izaera historikoan kokatuko du Marcusek. Haren iritziz, gaur egun ezagutzen ditugun zientzia eta teknika baldintza historiko batzuen ondorio dira. Horregatik gaurko teknika zerbaiten menperapen gisa ulertzen da, zerbait hori izadia zein gizakia izan daitezkeelarik. Bere oinarrian objektu baten kontrola dago. Marcuseren ustez, naturari aurre egiteko erabilitako metodo zientifikoak –subjektu batek objektu bat menperatzen du– gizakiak gizakia menperatzeko bidea zabaltzen duen. Hau horrela izatea, zientzia eta teknika sortu eta garatu direneko gizarteko baldintzei leporatu behar zaie.

Planteamendu honi eutsirik, Marcusek zientzia eta teknika alternatiboaren bilaketari ekingo dio, izadia eta

gizakia menperatu barik beraien ahalmenak askatzera zuzenduko diren zientzia eta teknika berriak bilatzeari alegia.

Puntu honetan bereizten da Habermas Marcuserengandik. Lehenengoaren iritziz, arrazoipide teknikoa lanaren izaerari loturik dago ezinbestean, eta ez dago ulertzerik baldintza historiko hutsen ondorio gisa. Gizakiak lan egin behar duen neurrian, helburuekiko egintza razionalaren beharra dauka, eta hau saihesterik ez dago. Beste gauza bat da izadiaren aurrean jarrera alternatiboa asmatu eta garatu beharra, dudarik ez. Baina nekez pentsa daiteke lan egiteko modu bat –hots, bizirik iraun ahal izateko izadiak baliatzeko modu bat– non helburu jakin batzuk lortzeko bitartekoak pentsatu eta aplikatu beharko ez baitira.

Habermasek Marcuseri egiten dion kritikak, alabaina, ez du bazter batera uzten azken honek salatzen duen alienazioa. Habermasek ez du ukatzen arrazoipide teknikoak –helburuekiko egintza razionaletan gauzatzen den arrazoipidea– gaur egun menperakuntza estaltzean duen indarra. Baina bere ustez, ez Marcusek ez Weberrek ez dute ondo asmatu helburuak lortzeko bitartekoez aritzen den arrazoipideak gizarteko harremanetan duen lekuari buruzko analisisan.

Auzi honi egokiro heltzeko, honako bereizketa hau dakarkigu gogora Habermasek: lana eta elkarrekintza. Gizateriaren historian zehar, gizakiak bi errealitate ezberdini aurre egin behar izan die: izadia edo natura, bata, eta gainerako gizakiekiko harremana, bestea. Eginkizun hauei lana eta elkarrekintzaren bidez aurre egiten die gizakiak. Lanaren eredia, egileak aldeztatik aurretik definituta duen helburua

lortzera bideratzen den egintza da. Gogoan duen helburua gauzatzeko, ezagutza enpirikoan oinarritutako arau teknikoek jarraitzen die egileak. Arau teknikoek trebetasunen ikasketaren bidez barneratzen ditugu, eta helburua lortzeko beren baliogarritasuna, formulazio enpirikoki egiazkoetan edota analitikoki zuzenetan oinarritzean datza: gure analisiak zuzenak edo enpirikoki egiazkoak ez badira, ez dago ziurtatuta aplikatzen ditugun arau teknikoek arrakasta izango dutenik. Helburua lortzeak, munduan lortu nahi den egoera burutzea esan nahi du. Porrota, aldiz, errealitatearen aurreko porrota da, eraginkortasun eza alegia. Helburuekiko egintza razionalak, azkenik, giza bizitzaren garapena dakar, izadiaren “kontrolaren” bitartez.

Elkarrekintza, ordea, egileen arteko ulerkuntzara zuzentzen den komunikazio-egintza da. Berau gidatzen dutenak ez dira arau teknikoak, subjektu artean indarrean dauden gizarteko arauak baizik. Arauok errolen barnaketaren bidez eskuratzen ditugu, eta beren baliogarritasuna subjektu artean onartuak izatean datza. Egokiro burututako egintzaren ondorioa, elkarrekiko adostasuna da. Arauak egokiro ez betetzeak, aldiz, zigorra dakar. Bestalde, komunikazio-egintzak subjektuek onartutako arau-mundu baten eraikuntza dakar (1. Irudia).

Gauzak horrela, eta Habermasentzat “gizartearen razionalizazioak” zer esan nahi duen argitzeko asmoz, esan dezagun bakoitzean nagusitzen den egintza-motaren arabera bereizten direla gizarteak. Gizarte batzuetan helburuekiko egintza razionala nagusitzen den bitartean, beste batzuetan elkarren arteko ulerkuntzara zuzendutako egintza da nagusi. Gure gizartearen historian, hauxe ikusten du Haber-

1. Irudia

	LANA (Egintza instrumentala)	ELKARREKINTZA (Komunikazio-egintza)
Egintza zuzentzen duten arauak	Arau teknikoak	Gizarteko arauak
Eskuratzeko moduak	Trebetasunen ikasketa	Errolen barneraketa
Eginkizunak	Arazo teknikoen konponketa	Arauei buruzko adostasuna
Baliagarritasun-irizpideak	Formulazio enpirikoki egiazkoak	Subjektu arteko onarpena
Arauak haustearen ondorioak	Eraginkortasun eza: porrota errealtatearen aurrean	Zigorra
Egintzaren ondorioak	Giza bizitzaren garapena, izadiaren "kontrolaren" bitartez	Askapena: subjektuek onartutako arau-mundu baten eraikuntza
Arrazoipide-mota	Arrazoipide instrumentala, zientifiko-teknikoa (Helburua-Bitartekoak)	Arrazoipide praktikoa (Elkarren ulerkuntza)

masek: gizarte tradizionalen bazeuden, egon, helburuekiko egintza razionalaren arabera gidatzen ziren sistemak. Sistema ekonomikoa, honen adibidea da. Hauen aldean, ordea, gizakien artean eraikitako arauetan oinarritutako sistemak aurkitzen ditugu, familia kasu. Baina garrantzitsuena hau da: gizarte tradizionalen, sistema osoari osotasuna ematen dion eremu instituzionala –gizakien arteko harremanak gidatzen dituen sistema nagusia– helburuekiko egintza razionalaren eremutik at dagoela. Gizarte tradizionalen, sistema osoa –helburuekiko egintza razionalaren azpisistemak barne– zilegiztatzen duen mundu-ikuskera ez du zalantzan jartzen arrazoimenak. Aitzitik, jatorri mitikoa, erlijiosoa, tradizionala edo dena delakoa duen sistema instituzionalaren mugen barnean kokatzen dira helburuekiko egintza razionala nagusi deneko azpisistemak.

Gizarte kapitalistan, ordea, aldatu egiten dira gauzak. Kapitalismoan,

helburuekiko egintza razionalaren azpisistemak gero eta gehiago hazten eta garatzen dira, inoiz izan ez duten hedadura hartuz; horrela, eremu instituzionala zilegiztatzen duen sistema zalantzan jarri arte. Hau gertatzen denean, gizarte tradizionalaren amaieraren aurrean gaude. Gizarte berrian, lanaren sistemak hartuko du eremu instituzionala zilegiztatzeko eginbeharra. Batetik, helburuekiko egintza razionalaren azpisistemak etengabe hasten direlako; bestetik, lanaren azpisistemak –merkatua nagusi delarik– ematen baitio legitimazioa gizarte osoari.

Honen adibide argigarria ikusten du Habermasek gaur egungo estatu kapitalistan. Sistema ekonomikoa nagusitasuna dela medio, merkatuak sortarazten dituen desorekak eta auziak konpontzera edo leuntzera dedikatzen da. Politikagintza "teknifikatu" egin da, gero eta gehiago sistema ekonomikoa-ren hazkundera eta egonkortasuna bermatuko dituen baldintzak eginkizun

nagusitzat harturik. Honen ondorioa, bistan da, gizartearen despolitizazioa dugu: politikagintza arazo tekniko konponketa den neurrian, teknikariak izango dira eginbehar horri ekin behar-ko diotenak; ez herritar soilak. Estatua, beraz, herritar guztion elkargune gabe, instituzio tekniko huts gisa ari da, gizarteko eztabaidak –haatik interesgune ezberdinen arteko eztabaidak– lekua galduz.

Helburuekiko egintza razionalaren azpisistemak gizartearen eremu instituzionalean nagusitzean, egintza-mota honi loturiko arrazoipidea ere –arrazoipide instrumentala– nagusitu egiten da gizartean. Langintzara edo politikagintzara ez ezik, bestelako sistemetara ere hedatzen da arrazoipide instrumentala: hezkuntza-sistema, komunikazio-egiturak, osasungintza, edota familiaren eremua, arrazoipide instrumentalaren itzalpean geratzen dira. Horrela, zenbait alditan, elkarrekintzarako jarreratik helburuekiko egintza razionalerako jarrerara igarotzen da gizakia sistema hauetan.

Modu horretan heltzen dio Habermasek gizartearen razionalizazioaren auziari, Weber-Marcuse ardatzetik abiatuta. Deskribatzen digun gizarte kapitalista –non elkarrekintza, gero eta gehiago, norberaren arrakasta lortzera zuzentzen den egintzak ordezkatzeko baitu– ez da oso erakargarria. Hala ere, dio Habermasek, horrek ez du esan nahi elkarrekintza desagertu

denik, ez eta etorkizunean hala gertatuko denik ere. Baina horiexek dira joerak, eta zenbait esparrutan joera horiek dituzten ondorioak ukaezinak dira.

Gizarteko bizitzaren “teknifikazioari” aurre egiteko Marcusek proposatzen zituen zientzia eta teknika berrientzat, esan dugun legez, ez du lekurik ikusten Habermasek. Honek beste nonbaitetik ikusten du irtenbidea. Hain zuzen ere, eta bere analisiaren ondorio logiko hutsa da hau, gizakien arteko elkarrekintzari dagokion zeregina ematearen ildotik. Hemen kokatu behar dugu bere “Komunikazio-Egintzaren Teoria” (ikus Habermas 1987).

Komunikazio-egintza eta egintza estrategikoa

Arrazoipide instrumentalak elkarrekintzari lekua nola kentzen dion ulertzeko, ezinbestekoa dugu Habermasek *egintza estrategikoa* deitzen dionari begiratzea. Egintzari buruz Weberrek eraikitako teoria birformulatuz, Habermasek hiru egintza-mota bereizten ditu (2. Irudia).

Jadanik ikusi dugunez, helburuekiko egintza razionala alde aurretik definitutako helmugara zuzentzen da, horretarako baliabide edo bitarteko egokienak erabiliz. Arrakasta, mundura ekarri nahi den egoera lortzean datza. Egintza mota honi *instrumentala*

2. Irudia


	EGINTZAREN HELBURUA	
EGINTZA-EGOERA	Arrakastarantz zuzendutako egintza	Adostasunerantz zuzendutako egintza
Ez-gizartekoa	Egintza instrumentala	—
Gizartekoa	Egintza estrategikoa	Komunikazio-egintza

esaten zaio, lortu nahi den helburua gauzen gaineko egoerei dagokienean. *Estrategikoa* esaten zaio, ordea, helburua beste izaki razional baten erabakien terminoetan definitzen denean. Alegia, egintza estrategikoak beste gizaki baten erabaketan bilatzen du eragina: zerbait egin dezan edo ez dezan egin. Habermasek dioen legez, egintza instrumentalak gizarteko egintzei loturik ager daitezke: lana kasu. Egintza estrategikoak, aldiz, berez dira gizarteko egintzak.

Komunikazio-egintzan, bestalde, egileak ez du bilatzen, beste ezeren gainetik, arrakasta propiorik. Egintza mota honetan, parte hartzen duten guztien adostasuna zeharkatuz lortzen da norberaren helburua. Nola ulertu, baina, adostasuna? Hasteko, esan dezagun benetako adostasunak oinarri razionalak izan behar dituela. Mehatxuan, engainuan, tratuan edo antzeko egoeretan lortutako akordioa ez da benetako adostasuna, elkarrekintzan ari direnek arrazoimenean baino gehiago beste nonbait funtsatzen baitute besteen onarpena: indarrean, trukean, gizarteko arauen arabera nagusitasunean, e.a. Benetako adostasuna lortzeko, ezinbestekoa da bakoitzak besteen argudio razionalak ulertzea, bai eta horien aurrean jarrera bat hartzea. Ontzat hartzen ez baditu, bere argudio propioak mahai-gaineratu beharko ditu, besteek epai ditzaten. Behin argudio razional hoberenak onaturik, elkarrekintzan ari direnek akordio horretatik erator litezkeen ondorioekin ere bat egin behar dute. Adostasuna, beraz, elkarren ulerkuntzan oinarritzen da. Komunikazio-egintzan, egilearen helburua, lehen-lehenik, ulerkuntza baita: besteek diotena ulertzea, eta norberak dioena ulertaraztea. Eta elkarren ulerkuntza horrek ahalbidetzen du adostasuna.

Gauzak horrela, honako hau esan dezakegu Habermasen komunikazio-egintzari buruz: batetik, adostasuna lortzeko ezinbestekoa dugu lengoia, beronen bitartez kanporatzen baititugu gure argudio razionalak, bai eta besteenak barneratzen. Bestetik, lengoaiaren bitartezko elkarrekintza guztiak ez dira adostasunera zuzentzen; ez dira, hartara, denak komunikazio-egintzak (3. Irudia).

3. Irudia



Eskema honetan ikus daitekeen legez, lengoaiaren bitartez burutzen ditugun egintza guztiak ez dira ulerkuntzara zuzentzen, ulerkuntza adostasunaren eraikuntza-prozesu gisa ulertzen bada bederen. Agindu bat ematen dugunean, kasu, argi dago entzuleak agindua ulertu egin behar duela, guk nahi dugun moduan jokatuko badu. Baina dioguna ulertzeak ez du esan nahi agindua emateko ditugun zioak ulertuko dituenik, ez eta ontzat hartuko dituenik ere. Kasu horretan, beraz ez gara adostasunik eraikitzen ari, batak bestearen esana modu faktikoan onarrarazten baizik.

Lengoaiaren bidez gauzatzen ditugun zenbait egintza elkarren ulerkuntzara zuzentzen ez direla, eta norberaren arrakasta lortzeko asmoz burutzen ditugula esateak, kolokan jartzen du, itxuraz, Habermasen tesia: alegia, hizketa-egintza ulerkuntza

lortzeko eredia dela; areago, arrazoipide instrumentala elkarrekintzaren eremua inbaditzen ari dela. Izan ere, elkarrekintzaren barnean elkarren ulerkuntzara zein norberaren arrakastara zuzentzen diren egintzak aurki balitezke, honako ondorio hau atera beharko genuke: elkarrekintza, komunikazio-egintzez zein helburuekiko egintza razionalaz gauza daiteke. Zentzurik ez luke izango, beraz, arrazoipide instrumentala elkarrekintzaren eremua inbaditzen ari dela esateak; elkarrekintzaren barnean berezkoa bailitzateke arrazoipide instrumentala ere erabilitea, arrazoipide praktikoz gain.

Ustezko kontraesan hau, ordea, konpon liteke frogatuko bagenu lengoaiaren jatorrizko erabilera dela ulerkuntzara zuzentzen dena, eta ez norberaren arrakasta bilatzen duena. Bigarren erabilera-mota hau arrotza edo parasitarioa dela argi ikusiko balitz, orduan zentzua izango luke Habermasen analisiak. Eta horixe da, hain zuzen, Habermasek Austinen lanean aurkitzen duen froga. Zehazki, Austinek hizketa-egintzaren lokuzio, ilokuzio eta perlokuzio-mailen artean egiten duen bereizketak bide ematen dio bilatzen duen froga aurkitzeko.

Hizketan ari garelarik, gutxienez maila ezberdin bitan murgiltzen gara aldi berean. Batetik zerbaiti buruz ari gara, zerbait hori hizketa gaia izanik. Bestetik harreman bat eraikitzen edo gauzatzen ari gara mintzakideok. Ardatz biok harturik, lokuzio eta ilokuzio-mailak bereiz ditzakegu: lokuzio-mailan, egileak zerbait dio; ilokuzio-mailan, egileak egintza bat burutzen du zerbait hori dioenean: jakinarazi, eskatu, aitortu, agindu, hitz eman, edo beste zerbait egiten du. Izan ere, ilokuzio-mailan esaleak egiten duenaren arabera izango da hizketa-

-egintzan sortzen edo birsortzen ari den harremanaren izaera.

Lokuzio-maila egileak esaten duenaren maila da. Egoera edo gertaera bat adierazten du. Ilokuzio-mailan, egileak zerbait egiten du esaten duen horretaz baliatuz. Maila hau orainaldiko aditz errealizatzaile batez agertzen da, “nork” kasua lehenengo pertsonari eta “nori” kasua bigarren pertsonari dagozkielarik. Izan ere, esaleak zerbait egiten dio hartzaileari: jakinarazi, agindu, aitortu, hitz eman, e.a. Ilokuzio-maila isladatzen duen esaldia ez da beti esakunean era esplizituan agertzen, eta era eliptikoa izan dezake. Eskutizetan, «Honen bitartez...» esaeraren ondoren datorren aditzak isladatuko luke ilokuzio-maila («Honen bitartez [zera] *erregutzen dizut...*»). Euskaraz, honelako hasiera jar geniezaieke esaldi guztiei: «Zera zertzen dizut: ...» *Zera* egiten dugun esakunea litzateke, lokuzio-maila adierazten duena. *Zertzea* esakuneaz egiten duguna litzateke (berri eman, agindu, iradoki, aitortu...). Honek ilokuzio-maila isladatuko luke.

Adibide batez ikus daiteke argiago lokuzio eta ilokuzio-mailen arteko ezberdintasuna. Umeak hizketan ikasten duelarik, ikasten duen lehenengo gauza harremana eraikitzea da; geroago ikasten du gauza zehatzak esaten. Umeak «Ama, ura!» esan orduko, bazekien gurasoei gauzak eskatzea bazuela. Bestela ez baitzuen ikasiko urik ez ezer eskatzen. Era berean, umeak lehenago ikasten du gauzak izendatu, errefusatu, galdetu eta beste gauza asko egin daitezkeela –hots, guraso eta ingurukoekin harreman-mota ezberdinak izan ditzakeela–, egintza konkretu horiek egiten baino. Hain zuzen ere, funtzio ilokutiboak ikastea ezinbestekoa du umeak

hizketan ikasteko. Beroriek ikasi ondoren hasten da, hartara, funtzio lokutiboak ikasten (Bruner 1986).

Perlokuzio-mailan, ordea, egileak helburu bat lortu nahi du, horretarako zerbait egiten duelarik (zertu). Eta egiten duen hori, zerbait esanez egiten du (zera). Perlokuzio-egintzan, egileak eraginaren bat lortu nahi du bere entzulearengan, eta asmo horrekin erabiltzen duen bidea zerbait esatea da. Adibidez, norbait nire nahietara makur dadin lortzeko (perlokuzio-egintza) mehatxatu egin nezake (ilokuzio-egintza), horretarako joko dudala esanez (lokuzio-egintza):

Lokuzio-maila: *Joko zaitut!*

Illokuzio-maila: *Joko zaitut[-dala mehatxu egiten dizut]*

Perlokuzio-maila: *Joko zaitut[-dala mehatxu egin[-ez makurrarazten zaitut]]*

Perlokuzio-maila ez da hizketa-egintza guztietan agertzen. Batzuetan, egileak besteek ulertzea baino ez du bilatzen, adostasuna lortzearren. Hizketa-egintzaren helburua bestearekiko adostasunera iristea da, horretarako norberaren burutazioak mahaigaineratzen direlarik. Demagun, gela batean daudelarik, A-k zera diotsola B-ri: «Kanpoan hobeto egoten da». Gerta liteke A eta B lagun minak izatea, eta elkarrekiko adostasunera iritsi nahi izatea, errealitatearen definizio amankomunen bidez. Kasu honetan ez legoke A-ren aldetik beste helbururik, B-ri errealitate baten berri eman ez definizio amankomun horretara iristea baino. Perlokuzio-egintzarik ez litzateke gertatuko hemen.

Baina gerta liteke, era berean, A-k B gelatik irtenarazi nahi izatea, eta asmo horrekin esatea hobeto egoten dela

kanpoan. Hemen, esaten denaren ulerkuntza urrats bat baino ez da, A-ren azken helburura –hots, arrakastara, kanporaketa gisa ulerturik– iristeko.

Kasu biok ondo bereiziko lirateke, hirugarren batek egintzaren deskribapena egingo balu. Lehenengo kasuan, honela deskribatuko luke egintza:

-“A-k kanpoan hobeto egoten dela esan dio B-ri”, edota

-“A-k kanpoaldeko egoeraren berri eman dio B-ri”.

Bigarren kasuan, ordea, horrela deskribatuko luke gertatutako egintza:

-“A-k B irtenarazi du [kanpoan hobeto egoten dela esanez]”.

Kasu honetan, hizketa-egintzaz egiten den erreferentzia erabat bigarren mailakoa da, funtsezkoena egintzaren arrakasta baitzen. Egilearentzat ere, neurri batean, berdin bete liteke bere helburua ezer esan barik B indarrez kanporatu izan balu (baina horren ordaina bereganatu beharko luke). Bitarteko ezberdinen aukeran, arrazoi-menak hizketa-egintzaren bidea aholkatu dio –eta ez besterik, adibidez indarra–, laguna kanporatzeko. Hizketa-egintza, beraz, zirkunstantziala da hemen. Horregatik gera liteke deskribaketatik kanpora. Lehenengo kasuan, ordea, derrigorrezkoa dugu egoera deskribatzeko hizketa-egintzari erreferentzia egitea, bai gauzatutako esakunez errepikatuz («kanpoan hobeto egoten dela esan dio»), bai A-k esakunez egin duena azalduz («kanpoaldeko egoeraren berri eman dio»).

Lokuzio-egintza, argi da, ulertua izan dadin burutzen dugu. Egoera,

gertaera edo asmo bat agertzen dugunean, uler dadin agertzen dugu. Horixe da gure asmoa. Ilokuzio-egintzaren bidez, bestalde, esaten duguna behar den moduan ulertua izan dadin saiatzen gara: hots, aitortza gisa, agindu gisa, berri gisa, iradokizun gisa, e.a. Batean zein bestean, entzuleak uler dezan lortu nahi dugu, eta hizketa-egintzak berak agertzen du –era esplizituan zein eliptikoan– gure asmo hori. Perlokuzio-egintzan, ordea, egilearen helburua ez dago asmatzerik hizketa-egintzatik soilik abiatuta, eta ezkutuan dituen asmoetara jo beharko genuke egintzaren helburua ezagutu nahi izanez gero (testuinguruaren edota sintomen analisiaren bitartez; eta, hala ere, egilea da, azken funtsean, bere hizketa-egintzaren benetako helburua defini lezakeen bakarra, inork definitzerik badauka).

Beraz, esan dezakegu lokuzio- eta ilokuzio-egintzen helburuak lengoian isladatzen direla, eta helburuok esandakoa ulertua denean lortzen direla. Perlokuzio-egintzan, aldiz, lengoia ezinbestekoa da, baina ez nahikoa. Alegia, helburua lortzeko beharrezkoa da hartzailak egileak dioena ulertzea, baina horrek ez du bermatzen azken honen helburua beteko denik. Ikusi dugunez, posiblea da, hizketa-egintzaren deskribaketan oinarriturik, lokuzio- eta ilokuzio-helburuak ezagutzea. Ez, ordea, perlokuzio-helburuak.

Hemendik honako ondorioa ateratzen du Habermasek: hizketa-egintzari jatorriz lotutako helburuak lokuzio eta ilokuziozkoak dira. Perlokuzio-helburuak arrotzak zaizkio hizketa-egintzari. Honen bitartez bilatzen dira, baina ez dira berorretan agertzen; harantzago baitoaz. Zentzu honetan, parasitarioak dira. Hizketa-egintza elkarrekintza

estrategikoaren eremura sartu izanaren ondorioak dira. Bestela esanda, norberaren arrakastara zuzentzen den erabilera ez da lengoaiaren erabilera jatorra.

Hartaz, hauxe esan dezakegu: lengoaiaren bidez burutzen den elkarrekintza batean kide guztiek ilokuzio-helburuak soilik bilatzen dituztenean, komunikazio-egintza baten aurrean gaude. Aldiz, hitzezko elkarrekintza batean batek edo gehiagok besteeenganako perlokuzio-helburuak bilatzen baditu, egintza estrategikoa agertzen zaigu.

Honaino helduta, lengoaiaren bidez burututako elkarrekintza bat komunikazio-egintza izan dadin suertatu behar duten baldintzei heltzen die Habermasek. Komunikazio-egintza, esan du Habermasek, adostasuna dakarren ulerkuntzara zuzentzen den egintza da. Noiz lortzen da, baina, adostasuna? Adostasunak honakoa esan nahi du: hizketa-egintzen bidez lortutako ulerkuntzaren gainean, solaskideen eginkizunak koordinatuta geratzen direla. Hau da, adostasuna lortzeko ez da nahikoa besteak dioena ulertzea; horrez gain, ikusi dugunez, ezinbestekoa da esandakoaren zioak ere ulertzea, bai eta ontzat ematea. Eta, logikoa denez, horren ondorioak ere bereganatzea. Horrela bakarrik eraikitzen baita elkarren arteko koordinaketa. Izan ere, A-k esan duena B-k ontzat hartzean, bien eginkizunak eta elkarrekiko esperoak ari dira ezartzen. Bakoitzak badaki besteak zer egingo duen, eta norberarengandik zer espero duen. Adostasun horretan koordinatzen dira A eta B, elkarrekiko eta kanpoko errealitatearekiko jokabide-arauak arrazoimenaren bidez ezarriz.

Unibertsal pragmatikoak

Begi bistan da solaskideek ez dituztela beti aintzat hartzen besteek esandakoak. Zeren arabera onartzen ditu, hartara, entzuleak esalearen hizketa-egintza? Habermasek dioenez, irizpide ezberdinak sartzen dira jokoan besteak esandakoak norberarentzat duen baliagarritasuna onartu edo errefusatzeko garaian. Ikus ditzagun irizpide ezberdinok adibide batez. Demagun mintegi batean irakasleak zera diotsola ikasleari:

- Mesedez, ekar iezadazu kafe bat.

Ikasleak agindu gisa har lezake esandakoa, eta besterik gabe kafea ekarri, bestela irakasleak nota txarra jarriko diolako beldurrez. Kasu honetan ez gaude komunikazio-egintza baten aurrean, ikasleak bederen ez baitu horrela hartu; aitzitik, egintza estrategiko gisa hartu du, baldin modu horretan irakurri badu hizketa-egintza-aren testuingurua. Testuinguru horren arabera, ikasleak epaitu egiten ditu irakaslearen asmoak, postuak ematen dion boterea, bere egoeraren ahulezia, eta horren ondorioz irakasleak esandakoa modu faktikoan onartzea erabaki du. Hori, alabaina, ez da benetako adostasuna.

Baina demagun beste egoera batean ikasleak adostasunera zuzendutako elkarrekintza-inguru batean kokatzen duela hizketa-egintza. Hots, komunikazio-egintza gisa. Kasu honetan, ikasleak hainbat arrazoi argudia ditzake, irakaslearen eskariaren baliagarritasuna errefusatzeko. Adibidez, irakasleak esaldia esatean duen asmoa jar lezake zalantzan:

- Ez, zuk nahi duzuna ez da kafea; zuk gelatik alde egin dezadan nahi duzu, nitaz gaizki esateko.

Edota esandakoaren posibilitate objektiboa jar dezake zalantzan:

- Ez, kafe-makina ez dabil.

Edota irakasleak hori esatearen zuzentasuna errefusa dezake:

- Ez, ni zure ikaslea naiz, ez zure morroia.

Kasu hauetako bakoitzean ikasleak osagai ezberdin bat jartzen du kolokan. Lehenengoan irakaslearen zintzotasuna da zalantzan jartzen dena. Irakasleak hitzez adierazten duenak ez du isladatzen benetan nahi duena, beti ere ikaslearen ustetan. Beraz, irakaslea ez da zintzoa –ikaslearen iritziz–. Gauza bat eskatzen du, ezkutuko helburua lortzeko (perlokuzio-helburua).

Bigarren kasuan esaten denaren egitasuna da zalantzan jartzen dena. Alegia, irakaslearen asmoa alde batera utzirik, hark eskatzen duena ez da modu objektiboan posiblea –ikasleak bederen hala uste du–. Adibide honetan eskaera baten posibilitate objektiboaz mintzo gara. Beste zenbait kasutan, aldiz, esandakoaren izaera objektiboari erreparatu beharko genioke (adibidez, irakasleak «Kafe-makina ondo dabil» esan eta ikasleak ez dabilela ihardetsiko balu). Orduan ere hizketa-egintzaren egitasuna baloratzen ari dela esango genuke.

Hirugarren kasuan, irakasleak hizketa-egintza hori gauzatzeko oinarritzat hartu duen arau-testuingurua errefusatu du ikasleak. Izan ere, komunikazio-egintza batean norbaitek halako eskaria egiten badu, entzuleak beteko duelakoan, itxaropen hori ahalbidetzen dioten arau amankomun batzuk daudelakoan egongo da. Arauotan oinarrituko da eskari hori

egiteko, eta entzuleak arauotan oinarrituta beteko duela espero izango du. Adibidez, irakaslea elbarritua balitz, eta bere gurgildun aukeratik gela ondoan duen makinatik kafea ekartzea eskatuko balu, batak zein besteak onar litzakete eskaria eta itxaropena ahalbidetzen dituzten elkertasunezko arauak. Ikasleak ez luke, orduan, arrazoirik izango hizketa-egintzaren baliagarritasuna onartzeko (beti ere aipatu ditugun zintzotasuna eta egitasuna betetzen direla uste badu). Eskatutakoa eta eskatzea bera, zuzen edo egokitzen joko litzuke. Baina beste egoera batean, ikasleak pentsa lezake horrelako eskaria inongo arautan oinarritzerik ez dagoela (nahiz eta irakaslearen zintzotasuna –benetan kafea nahi du– eta eskariaren bideragarritasun objektiboaz –makina ondo dabil– batere zalantzarik eduki ez). Kasu honetan, hizketa-egintzaren egokitasun edo zuzentasuna kolokan jartzen duela esango genuke.

Laburtuz, Habermasen ustez honako baldintzak bete behar dira hizketa-egintza baten inguruan benetako adostasuna sor dadin: zintzotasuna, egitasuna eta egokitasuna. Hizketa-egintza baten baliagarritasuna epaitzeko hiru irizpide hauei, halaber, laugarrena gehitzen die: ulergarritasuna. Izan ere, besteak diotenaren errefusa ulergarritasun ezetik etor

liteke. Jakina, tankera honetako oztopoa gainditu egin daiteke hizkuntz-kode berbera erabiliz gero.

Baliagarritasun-irizpide hauek aldarrikatzen ditu esaleak bere hizketa-egintza aintzat hartua izan dadin, eta berorien inguruko adostasuna lortzea dakar elkarren ulerkuntzak. Mintzai-deetako bakar batek zalantzarik badu irizpideren bati buruz, berori adostu beharko da akordioa lortzeko. Esan genezake hizketa-egintza batean parte hartzen duten errealitate-eremu ezberdinei dagozkiela irizpideok, errealitatearen eremu horiek modu ezberdinetan agertzen direlarik (4. Irudia).

Irizpide hauek, Habermasek dioenez, hizketa-egintza guztietan aplikagarriak dira. Esaleak, komunikazio-egintza guztietan aldarrikatuko ditu esaten duenaren egitasuna, zuzentasuna, zintzotasuna, eta ulergarritasuna. Halaber, lauotako baten inguruan sor daiteke adostasunerako oztopoa. Baliagarritasun-irizpideok, beraz, unibertsalak dira. Hori dela eta, *unibertsal pragmatikoak* deituko zaie.

Unibertsal pragmatikoak behar bezala betetzen badira eraiki daitezke, Habermasen ustez, elkarrizketarako egoera idealak; alegia, elkarren ulerkuntza eta benetako adostasuna ekarriko dituzten elkarrizketarako egoerak. Bide horretatik, koakziorik gabeko komunikazio-

4. Irudia

ERREALITATEAREN EREMUA	AGERPEN MODUA	BALIAGARRITASUN IRIZPIDEA
Kanpoko natura	Objektibotasuna	Egitasuna
Gizartea	Arauzkotasuna (Normatibitatea)	Egokitasuna
Barneko natura	Subjektibotasuna	Zintzotasuna
Lengoaia	Subjektuartekotasuna	Ulergarritasuna

rantz abiatzen gara; denak mintzaide eta dena mintzagai izan daitekeen komunikazioa esan nahi baita.

Halako elkarrizketan, argudio one-nak bihurtuko dira adostasunaren ardatz; ez ordea alde aurretiko usteak edo gizakien arteko harreman desorekatuetan funtsatutako onarpen faktikoak, hala ohartunak nola oharkabeak.

Bukatzeko, esan dezagun Habermasen iritziz bide honetatik berreskura daitekeela elkarrekintzaren eremuan komunikazio-egintzak duen funtsezko zeregina. Gizakien arteko harremanak

arautzeko egintza estrategikoak nagusitzen ari zaizkigun garai honetan, komunikazio-egintzan oinarritutako elkarrekintza berreskuratzean datza mundua era razional eta zuzenean berrantolatzeke aukera. Azken funtsean, proposamen honen bitartez Frankfurtoko Eskolako kideek amesten zutenari bide eman nahi dio Habermasek: mundua eta gizakiaren askapenari alegia, horretarako arrazoimena erabiliz; ez Weberrek zioen eta Marcusek kritikatzan zuen gizartearen razionalizazioa lortuz, beronen razionaltasuna eskuratuz baizik.

Erreferentziak

- Austin, J. L. (1982): *Cómo hacer cosas con palabras*, Paidós, Bartzelona, (1. arg. 1962).
- Bruner, J. (1986): *El habla del niño, Cognición y desarrollo humano*, Paidós, Bartzelona, (1. arg. 1983).
- Habermas, J. (1987): *Teoría de la acción comunicativa*, Taurus, Madril.
- , (1991): "Zientzia eta teknika ideologiatzat", in Palacios, X. (arg.) *Filosofía testuak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 474-507 [1. arg. 1968].
- Mardones, J. M. (1991): "J. Habermas: Zientzia eta teknika ideologiatzat", in Palacios, X. (arg.) *Filosofía testuak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 459-473.
- Searle, J. (1980): *Actos de habla*, Cátedra, Madril.
- Sudupe, J. (1994): *Ilustrazioaren kriseilupean, Argi berri bila Frankfurtan*, Alberdania, Irun.